

MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

PRESOEN ARGAZKIAK. Sakabanaketa eta euskal presoek jasaten dituzten eskubide urraketak salatu zituen jende ugarik, atzo, euskal errepideetan. Presoen argazkirik ez zen falta izan bide bazterretan.

Presoen salaketa oihua

ALCOLEA-KO EGOERA. Kordobako espetxean diren presoek «ia egunero» pairatzen dituzten jipoiak salatu dituzte

Edurne Begiristain | **GASTEIZ**

Kordobako Alcolea espetxean dauden euskal preso politikoek «behin eta berriz» jasaten dituzten jipoi eta tratu txarrak salatu dituzte. Alcolean dauden zortzi euskal preso politikoak bi taldetan banatuta daude; batzuk modulu arruntetan (Inaxio Crispin, Guillermo Marañon, Ibon Muñoa eta Ricardo Prieto), eta beste batzuk bakartuta (Fernando Garcia Jodra, Unai Parot, Joseba Urrusolo Sistiaga eta Harriet Iragi). Hona hemen euskal presoen salaketaren laburpena.

BAKARTUTAKOEN EGOERA. Bakartze moduluek 22x8 neurriko patioak dituzte, eta, bertan, komuna, mahai bat eta lurrera soldatutako bi banku daude. Euria egiten duenean, beste areto batera eramaten dituzte. Areto hau patioa baino txikiagoa da. Ziegetako leihoetatik hormigoizko horma bat ikusten dute soilik.

MIAKETAK. Miaketak «eguneroko ogia» direla salatu dute: «Ziegatik irtetean, sartzean, telefonoz deitzera joatean, bisita izatean...». Miaketak metalak detektatzeko *raketekin* egiten dizkietela diote, eta, normalean, presoa bakarrik egoten da, lau espetxe funtzionarioz inguratuta. Ziegak ere egunero miatzen dizkiete, presoak patioan edo ziegatik at direnean.

JIPOIAK ETA TORTURAK. Modulu arruntetan dauden presoak «edozein gatazka izateagatik» bakartze ziegetara eramaten dituztela azaltzen dute presoek. Bertan, funtzionarioek «ongietorri berezia» egiten diete, alegia, galtzontzilotan jarrarazi, eta lehen jipoia jasotzen dute. Ondoren, kamerarik ez dagoen beste gela batera eramaten dute presoa, eta, han, «eskuburdinez lotu eta torturatzen jarraitzen» dutela salatu dute. «Hainbat kasutan, presoa egunean zehar behin baino gehiagotan torturatzen dute: korridorean porrekin jipoitu, ostikada eta ukabilkadak ematen dizkiote plastikodun eskularruekin...».

HARRIET IRAGIREN TESTIGANTZA. Valdemorotik Alcoleara eraman zuten maiatzaren 30ean Harriet Iragi, eta bakartze moduluan sartu. Ekainaren 4an, bortitz jipoitu zuten funtzionarioek. Arrastaka eraman zuten, iletik tiraka, eta ileak erauzten zizkioten bakoitzean, Harrieten buruak lurraren kontra jotzen zuen. Gela batera eraman, eta eskuak eta hankak ohe txiki bati lotu zizkioten eskuburdinak erabiliz. Porren puntak begietan sartu zizkioten, eta kopetan, buruan eta barrabiletan ere jo zioten. Jipoitzen ari zitzaizkion bitartean, funtzionarioak sartu ziren, nola kolpatzen zuten ikustera. Guztira, hamabost funtzionario inguru bildu ziren. Iragiri odola burutik isuritzen zitzaiola ikustean, jipoitzeari utzi zioten, eta ohean bertan utzi zuten, lotuta.

JIPOIAK ALCOLEAN

Modulu arruntetatik bakartzekoetara sartzerakoan, presoa gantzontzilotan jarri, eta lehen jipoia jasotzen du

UNAI PAROTEN TESTIGANTZA. Zortzi funtzionarioren artean hankak ireki zizkioten, eta «hilko zaitugu, urkatuko zaitugu, kartzelatik ez zara bizirik aterako...» mehatxuak egin zizkioten. Porrekin jotzen eta ostikoak eta ukabilkadak ematen hasi zitzaizkion. Unaik, nola edo hala, lurretik arrastaka txoko batean babestea lortu zuen, baina funtzionarioek berriz ere inguratu, besoak bortizki atzera bota, eta eskuburdinak jarri zizkioten. Ziegara sartzean, ohera lotu, eta berriz ere aurpegian kolpeak ematen jarraitu zuten, konortea galdu arte.

SALAKETAK. Eraso horien aurka salaketa egiteak ez duela ezertarako balio diote presoek. Azaltzen dutenez, presoari jipoia eman ondoren, behin baino gehiagotan espetxeak zigorra edo *partea* deritzon orria bidaltzen dio presoari, «errugabea eta jipoitua, errundun eta erasotzaile bihurtuz». Egoera hori salatzeko, presoek borrokaldi ugari egiten dituzte, gose greba barne.

HALCON VIAJES-en GARAIPENA
UDA OPERAZIOA
SOLO EN HALCÓN
TUNEZ 8 EGUN 308€tik 51.247 pezeta-tik

DESTINOA	ABUZTUA	IRAILA	DESTINOA	ABUZTUA	IRAILA
BENIDORM (COSTA BLANCA)	44€tik 7.321 pezeta-tik	35€tik 5.823 pezeta-tik	PRAGA 8 EGUN	476€tik 79.200 pezeta-tik	514€tik 85.522 pts.
TUNEZ 8 EGUN	361€tik 60.065 pezeta-tik	308€tik 51.247 pezeta-tik	HIRI INPERIALAK 8 EGUN	600€tik 99.832 pezeta-tik	585€tik 97.336 pts.
TURKIA 8 EGUN	414€tik 68.884 pezeta-tik	414€tik 68.884 pezeta-tik	MALLORCA 8 EGUN	381€tik 63.393 pezeta-tik	340€tik 56.571 pts.

PREZIO HOBEA* AURKITZEN BADUZU, DIFERENTZIA ORDAINDUKO DIZUGU
*Tokiroan orgitzerakoa bidaia berbera. Bidaiaren prezioak ondokoa barne hartzen du: joan-etorria hegazkinez (Iturraldeko izen-ordu). Irteera: Bilbotik. Prezioa pertsonako (hozgabeko gela bikoitzean eta prezioak pertsona eta gau bakoitzeko; prezio lortuak, okupazioko eta indarreko dira. Joan-etorriak, biak eta aeroportuko tasak ez dira prezio horrean sartzen. Kontuketa irteerak baino aeroporta batzuetatik. Plaza mugatuak.
HALCON VIAJES ZERBAITEGATIK GARA LEHENAK
Salamanca 2002
Bisita gaitzazu www.halconviajes.com beti erantzungo dizugu
700 bulego zure zerbitzura Espainia eta Portugalen-Informazioa eta erreserbak: 902 300 600
HALCON BIDAIAK
BIDAIATZEKO MODURIK AZKARRENA

Zure aisialdirako gida
www.Egunkaria.com/agenda